

Estatu-rik gabeko nazionalismoak eta migrazioak. Euskal kasutik abiatu-riko begirada

(Stateless Nationalisms and Migrations. A Basque approach)

IRAOLA ARRETXE, Iker
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Soziologia Saila. Donostiako Irakasleen Unibertsitate-Eskola. Oñati plaza, 3.
20018 Donostia
iker.iraola@ehu.es

Komunikazio honek migrazio-prozesuen eta nazionalismoen arteko hartu-emanak ditu hizpide, azken hauen kasuan bereziki estatu-rik gabeko nazionalismoetan arreta jarritz. Horrela, mugimendu nazionalista sendo bat duten eremuetan, migrazioak nazionalismo horietan bertan sortzen dituen erantzunak aztertzen dira. Zentzu horretan, euskal nazionalismoak gaur egungo migrazioaren aurrean garatzen duen posizioaz gako batzuk azpimarratzen dira.

Gako-Hitzak: Immigrazioa. Euskal nazionalismoa. Nazio identitatea. Integrazioa.

Esta comunicación trata sobre las relaciones entre los procesos migratorios y los nacionalismos, en el caso de estos últimos prestando una especial atención a los nacionalismos sin estado. De esta forma, se estudian las respuestas que la inmigración provoca en el nacionalismo, en aquellos ámbitos en los que existen movimientos nacionalistas consolidados. En este sentido, se subrayan algunas claves en torno a la posición que se desarrolla en el interior del nacionalismo vasco ante el actual proceso de inmigración.

Palabras Clave: Inmigración. Nacionalismo vasco. Identidad nacional. Integración.

Cette communication aborde les relations entre les processus migratoires et les nationalismes, en accordant, dans le cas de ces derniers, une attention toute spéciale aux nationalismes sans État. Elle analyse, ainsi, les réponses que l'immigration provoque dans le nationalisme, dans les domaines où il existe des mouvements nationalistes consolidés. En soulignant, dans ce sens, certains éléments clés autour de la position qui se développe au sein du nationalisme basque face à l'actuel processus d'immigration.

Mots Clés: Immigration. Nationalisme basque. Identité nationale. Intégration.

1. SARRERA

Etorकिनak besoak zabalik hartu behar ditugu.
(...) Etorकिनen etorrera euskararentzako azken ezpata izan liteke.

Gotzon Garate, *Gara*, 2006ko abuztuaren 31

Gero eta herritar gehiago dira guraso nafarrak ez dituztenak. Horiek, oro har, irrikaz daude gure gizartean sartzeko, baina ez euskara ikasteko, guk adina kontsumitzeko baizik. Nazionalismoek ez diote etorकिनen aferari erantzuten ordea, ez Espainiakoak ez euskal nazionalismoak. Eta arazoa zinez serioa da.

Xabier Zabaltza, *Argia*, 2008ko urtarrilaren 13a

Euskarari, identitateari, nazioari... loturiko gaiak jorrratzerakoan, immigrazioaren gaia maiz agertzen denaren sentipena dugu, agian euskarari loturiko sektoreetan batez ere. Gotzon Garate zenaren aipuak, esaterako, hainbat sektoretan antzeman daitekeen sentipenaren erakusgarri da, geure ustez.

Erantzuten al diote nazionalismoek immigrazioaren aferari? Areago, esateko zerbait al dute nazionalismoek auzi honetan? Bigarren galdera honi dagokionez, baiezkoan gaude; lehenengoari dagokionez, Xabier Zabaltzaren ardura zentzuzkoa iruditzen zaigu.

Neurri batean, ugariak dira immigrazioaren aspektu kulturala ere jorratu behar dela dioten ahotsak. Bistan denez, etorकिन kolektibo ugarien gizarte bazterketa egoe-rak lehenetsunak beste eremu batzuetan jartzera behartzen du. Hala ere, kulturaren eta nazio identitatearen gaiak ere jorrratzen dira, batez ere estatu-nazionalismoen aldetik. Modu esplizituagoan (Frantzian Sarkozyren gobernuak 2007an sortutako nazio-identitatearen ministerioarekin¹, kasu) edota, gehienetan, modu isilago batean. Baina estatuek ustez euren ezaugarriei hobekien lotzen zaien immigrazioa *aukeratzen* dute, dela kulturaren ikuspegitik (hizkuntza bera izatea, erlijio bera...) edota formazioaren aldetik (lan-eremu zehatzetan hezitako lagunak lehenetsiz).

Testuinguru horretan, estaturik gabeko nazionalismo indartsuak dituzten lurralde batzuetan ere immigrazioaren aspektu kultural eta nazionala azpimarratu egiten da. Besteak beste, Quebec aipatu ohi da adibide gisa. Nazionalismo hauen ardura, euren gutxiengo izaeraz kontziente izanik, immigrazioa euren nazio zein kultur izaerarentzat kaltegarri ez izatean datza.

Nazionalismoen eta migrazioen arteko hartu-emana du aztergaitzat komunikazio honek, beraz. Zehazkiago, estaturik gabeko nazionalismoek afera horren aurrean dituzten berezitasunetan jarri nahi dugu arreta. Estaturik gabeko nazionalismoa eta immigrazioa hartu-emanean ipiniko dugunez, gaiaren dimentsio nazional zein kulturalaz ariko gara, eta baita dimentsio horretan Estatua izatearen garrantziaz ere.

Ondorengo komunikazioa, bada, hiru atal nagusitan banatzen da. Lehenean, nazionalismoa eta immigrazioaren arteko harremanean gure ustez garrantzitsuak diren aspektu batzuk azaltzen saiatu gara.

1. *Ministère de l'Immigration, de l'Intégration, de l'Identité nationale et du Développement solidaire.*

Bigarren atalean, bere aldetik, estaturik gabeko nazionalismoak immigrazioarekiko erlazioan dituen berezitasunetan sakontzen da. Lehenik eta behin, nazionalismo hauek estaturik ez izatearen garrantzia azaltzen da. Horrekin batera, gutxiengo nazionalen eta immigranteek osaturiko gutxiengoek euren artean dituzten izaera desberdinez ere ideia batzuk azaltzen dira, estaturik gabeko nazionalismoak zein immigrazioak suposatzen duen edo aldarrikatzen dituzten kultura-aniztasunen artean dauden hartu-emanetan arreta ipini asmoz.

Hirugarren atalean, azkenik, estaturik gabeko nazionalismo bat hartzen da hizpide, euskal nazionalismoa hain zuzen. Horrela, lehenik eta behin, abertzaletasunaren baitan immigrazioarekiko harremanetan izandako diskurtso zein praktika mailako garapen eta aldaketa handia azaltzen da. Ondoren, egungo immigrazioak geure ustez dituen berezitasun batzuk azpimarratzen dira. Eta hirugarren puntu honen amaiera gisa, abertzaletasunak egungo immigrazioaz garatzen duen ikuspegi azpegi aspektu batzuk azpimarratzen dira.

2. NAZIONALISMOAREN ETA MIGRAZIOEN ARTEKO HARTU-EMANEZ BI HITZ

Komunikazio honen muinean sartu aurretik, eta gaiaren kokapen gisa, nazionalismoen eta migrazioen arteko erlazioan gure ustez kontuan hartu beharreko aspektu batzuk azpimarratu nahi ditugu.

Nazionalismo orok nazio baten aldarrikapen politikoa egiten du, eta herri bat nazio gisa definitu eta mugatzea du ondorioztat. Horrekin batera, nazioa osatzen duten subjektuak zehaztuko dira (hiritarrak, nazionalak, izango direnak). Nazionalismoak bere errebindikazio politikoaren subjektua zehaztu behar du, beraz. Beste hitz batzuekin esanda, nazionalismoak aldarrikatzen duen *Gua* definitzen du.

Zentzu horretan, bigarren mailakoa da definizio horien balizko *egiazkotasuna* zein *faltsutasuna*. Nazioaren eta nazionalismoaren ideien indarra eta eragina gizarte-definizio arrakastatsuek izatean datza; hau da, pertsona kopuru nahikoak ideia horiekien bat egitean. Ikuspegi analitiko horrekin bat egiten duten definizio andanatik, Walker Connorren ondorengoa baliagarri zaigulakoan gaude: “(...) [una nación] es un grupo de personas que *creen* estar ancestralmente relacionadas.” (1998: 89; egileak azpimarratutakoa). Agerikoa denez, definizio kolektibo horrek ondorio errealak ditu.

Gua definitzeak *Beste*arekiko desberdintasun bat finkatzea dakar. Nazionalismoak, hortaz, hasieratik izan dezake *beste*ekiko harreman problematikoa izateko joera. *Beste* hauek gizarte talde desberdinak izan daitezke: nazioaren kanpokoak (gainontzeko nazioetakoak; atzerritarrak) eta baita barrukoak ere. Barrukoak, betidanik bertan bizi baina *beste* nazio izaera bat duten gizarte taldeak (ijitoak, juduak -historian zehar-, bestelako gutxiengo nazionalak) edota etorkinak izan ohi dira (kanpotar gisa jo arren, bertan bizi direnak), nagusiki. Nazio *barruko* hauek izan dira bereziki gatazkatsuek nazionalismoarentzat, nazioaren bere definizio hori zalantzan jarri edo, gutxienez, zailtzen duten heinean. Nazioaren definizio purua zena, ñabarduraz betetzen dute². Etorkinak, beren aldetik, *kanpoko* eta *barruko* izatearen artean daude.

2. Ideia horri loturik, besteak beste juduen izaera *problematikoa* azpimarra daiteke. Zygmunt Baumanek, Europako historian juduek izandako paperari erreferentzia eginez, *gizarte talde likitsa* [“grupo social viscoso”] gisa definitu zituen. Sakontzeko, ikus: Bauman, Zygmunt (1997): *Modernidad y Holocausto*, Madril: Sequitur.

Nazionalismo batek migratzaileen aurrean garatzen duen jarrera alde batera (errefusatzeari) edo bestera (integrazio nahiz asimilazio asmoak) mugitzen duen faktore garrantzitsua, nazionalismoak bere nazioaz egiten duen definizioa da. Horrela, nazioaren definizio hori elementu desberdinen arabera egin liteke: arraza, etnia, hizkuntza, erlijioa, historia, borondatea bera, etab. Definizio hauetako batzuk (arrazak) egun –ia– erabiltzen ez diren bitartean, hizkuntza eta borondatea bezalakoak eragin handikoak dira, arrazoi desberdinak direla eta. Halaber, nazioaren definizio batzuek *kanpokoek* (migratzaileek nahiz bestelako taldeek) nazioarekin bat egitea ia ezinezko bihurtuko duten bitartean, beste batzuek *kanpoko* talde horiek nazio horri batzeari ez diote hainbesteko oztoporik ipiniko. Areago, zenbait kasutan *kanpokoak* nazioarekin bat egitea bila dezake nazionalismoak.

Agerikoa denez, nazioaren definizioari loturik aurkitzen dira Estatu bateko hiritartasuna lortzeko eskatzen diren ezaugarriak. Hauek, estaturik gabeko alda daitezke eta, besteak beste, ondoko hauek aipa ditzakegu: ahaidetasuna, bertan jaioa izatea, bertan zenbait urtetan bizitzea eta lan egitea, bertako hizkuntzaz mintzatzeko gai izatea, borondatea erakustea, etab. (Azurmendi eta García, 2001: 76). Zentzu horretan, hainbatetan, tradizio frantsesaren eta alemaniarren arteko bereizketa egiten da, lehenak hiritartasun zibiko bat proposatuko lukeen bitartean, bigarrenak hiritartasun etniko baten alde egingo lukeelarik. Hau da, erresidentzian oinarritutako frantses ereduak (*jus soli*), batetik, eta oinordekotzan oinarritutako alemaniarra (*jus sanguinis*), bestetik. Hala ere, egungo immigrazio errealitateak banaketa ideal hauek zalantzan jartzen dituztela azpimarratzen dute batzuek, Zabaltzak egiten duen legeaz (2006: 204), hizkuntza bezalako elementuek indarra hartzeko joera geroz eta nabariagoa baita ustez *pretentsio etnikorik* ez duten estatuen aldetik.

Nazionalismoaren eta immigrazioaren hartu-emanetan sakonduz, erlazio hau aztertzen duten hiru teoria nagusiak aipatzea komeni da. Batetik, *asimilazioaren* ikuspegia dugu, zeinak immigranteek gizarte mugikortasuna eskuratzeko egiturazko nahiz kulturazko asimilazioa beharrezkoa dutela azpimarratzen duena; bigarrenik, *segmentazioaren* perspektiba dugu, zeinaren arabera autoktonoak eta immigranteak eta horien seme-alabak ekonomikoki zein kulturalki banaturik mantentzen diren gizarte-talde gisa kontzeptualizatzen dituen; eta hirugarrenik, *multikulturalismoa*, aurreko bien artean kokaturik, immigrazioak sorturiko aniztasun kulturala onartzen duena baina, aldi berean, bizitza publiko zein politikorako eremu publiko komun bate re onartzen duen (Shafir, 1995). Hirugarren hau da, gure ustez, egungo errealitateari hobeki lotzen zaiona, eta komunikazio honetan lantzen dugun gaia ulertzeko baliagarri dena.

3. ESTATURIK GABEKO NAZIONALISMOEN BEREZITASUNAK MIGRAZIOEI DAGOKIENEZ

3.1. Estatuaren auzia

Behin nazionalismoen eta migrazioen arteko hartu-emanetan kokatzeko xedearrekin ideia batzuk azpimarratu ostean, sar gaitzezen orain estaturik gabeko nazionalismoek³ auzi honi dagokionez dituzten berezitasunetan.

3. *Nazionalismo minoritario* izendapena ere maiz erabiltzen da, estatu baten osotasunean gailentzen den

Lehenik eta behin, estaturik gabeko nazionalismoen eta immigrazioen arteko harremanetan bi errealitate azpimarratu behar ditugu. Alde batetik, edozein immigrazio mota estaturik gabeko nazionalismo horren partetik arrisku gisa hartzeko joera izan da, arrazoi desberdinak direla medio (gutxiengo izatearen sentipena nabarmentzeko da); bestetik, hainbat estaturik gabeko nazionalismok immigranteak onartzen dituzte, euren kulturak onartzen dituzte, eta aldi berean euren nazioan integratzera bultzatzen dituzte (Kymlicka, 2003). Hortaz, aurkakoak diruditen bi aspektu hauek kontuan izan behar direla uste dugu. Zentzu horretan, nazionalismo azpi-estatalak izaera anbiguak dira immigrazioarekiko.

Aurrekora itzuliz, nazionalismoak bere nazioaz burutzen duen definizioak ondorio zuzenak ditu migratzaileen aurrean garatuko duen ildoari dagokionez. Zentzu horretan, nazio definizio horretan funtsezkoa iruditzen zaigu Estatuaren afera ere kontuan izatea. Estatuak, horrela, nazionalismo baten aldarrikapena edo-eta helburua izan daiteke (estaturik gabeko nazionalismoa) edo nazionalismo baten tresna (estatudun nazionalismoa). Estatuak izatea edo ez migrazioak kudeatzerako garaian oinarritzeko aukia dugu.

Alde batetik, eraginkortasunarena kontuan hartzeko aspektua dugu. Horrela, nazioaren zein kulturaren arloetan eragin nahi duten politikak aurrera eramaterakoan, Estatuaren tresnak edo oso antzeko mailakoak beharrezkoak izan daitezke. Horregatik, ez da harritzekoa kasurik gehienetan migrazio politikak Estatuak definitzea, eta ez bestelako egitura administratiboek⁴. Nazio-hizkuntza bezalako eremuetan, esaterako, Estatu baten tresnekin jardun ahal izatea diferentziazko aspektu garrantzitsua izango da. Eraginkortasunari loturik, edo horren baldintza gisa, legitimitatearen aukia ez dugu ahaztu behar, noski. Estatuak izateak legitimitate karta ematen die beste hainbat egoeratan *nazionalismo etniko* baten aldarrikapen gisa hartuko liritekeen aukiei.

Estatuak diogunean, ñabardura bat ere egin behar dugu. Nazio zein kulturaren arloetan politika osoak garatzeko gaitasunaz ari gara. Quebecen eskumen zabalak dituzte gai hauei dagokienez eta, esaterako, eraginkortzat jo daitezkeen politikak bultzatzen dira etorkinen artean frantsesa hedatzerakoan⁵. Antzeko egoera eman da Flandesen, esaterako. Zapata-Barrero kataluniarrak dioskun bezala, hala ere, “la inmigración ha tenido como efecto, tanto en Quebec como en Flandes, la necesidad de autodefinirse como nación-Estado.” (2008: 25). Horrela, immigrazioaren afera lantzen duten estatu bako nazionalismo esanguratsuen kasuan, immigrazioari buruzko eztabaida aldarrikatutako nazioaren autogobernu mailari lotuta egon da.

Horri loturik, funtsezkoa da estaturik gabeko nazionalismoak immigrazioaren alorrean politikak garatzeko aukera izatea; immigranteekiko integrazio-prozesuan nazio azpi-estatalak ere nolabaiteko kontrola izatea. Horrek, bistan denez, immigrazioarekiko jarrera ezkorrak leuntzen edota ezabatzen lagunduko luke.

gehiengoaren nazionalismoaren kontraposizio gisa. Testu honetan, horren sinonimotzat darabilgu estaturik gabeko nazionalismoa.

4. Espainiako Estatuan gertatzen den bezala, esaterako.

5. 101 Legea etsenplu argigarria izan daitekeelakoan gaude. Lege horren bidez, Quebecera iristen diren etorkinek euren seme-alabak irakaskuntza frantsesez garatzen duten eskoletan matrikulatzea derrigorturik daude. Gainontzeko herritarrek ez dute betebeharrak hori (Juteau, 2005).

Estaturik gabeko nazionalismoaren eta immigrazioaren arteko harremanarekin jarraituz, gehienetan, estatu hartzailea eta gizarte hartzailea ez datoz bat. Hau da, Estatuko nazio identitate nagusia, hegemonikoa, ez da halakoa izaten Estatuaren lurralde guztian. Beste hitz batzuekin esanda, Estatua eta nazioa ez dira –ia–inoiz bat etortzen. Estatu hartzailearen eta gizarte hartzailearen arteko balizko kontraesan hau, halere, adierazgarria ez izatea gerta liteke, Estatuarenarekin bat ez datorren kultura horrek atzetik mugimendu nazionalista eraginkor edo indartsurik ez badu, adibidez⁶. Baina beste hainbatetan, eta bereziki nazionalismoa garaturik badago, kontraesan horrek esangura hartzen du. Kasu horietan, estaturik gabeko nazionalismo horrek nazioaren zein kulturaren arloetan migrazio-politikak garatu ezin baditu, migrazioa proiektu nazionalari kaltea eragiten dion zerbait bezala hartzeko joera nagusi izan da (Kymlicka, 2003).

Migrazioen auzian estaturik gabeko nazioaren aldetik gaitasunik, eskuduntzarik ez badago, immigranteek kultura nagusian (hortaz, Estatuaren kulturaren) integratzeko joera izango dute, botere harremanen eraginez. Kultura nagusiak, orokorrean, gizarte mugikortasun handiagoa eta aukera ekonomiko hobeak eskaintzen ditu; eta horren kontrapisu gisa funtzionatzen duten politikak garatu ezean, etorkinak (ez horiek bakarrik, noski, baina hemen eurez ari gara) kultura nagusi horri batuko zaizkio, oro har.

Estatu bako nazionalismoa eta immigrazioa hartu-emanen jartzerakoan izan ohi den inpresio hori (immigrazioa estaturik gabeko nazioarentzat arriskua izan daitekeela) hainbat modutara justifikatzen da. Arrazoibide horien egiazkotasuna edo faltsutasuna alde batera utziz, eta Will Kymlicka kanadarraren ikuspegia erreferentzia gisa hartuz, Zapata-Barrerok argudio horiek hiru multzotan laburbil daitezkeela azaltzen du (2008: 27-28):

- *Botereari loturiko argudioak*. Immigranteen presentziak estaturik gabeko nazioaren eta Estatuaren kulturaren arteko botere harremanak eraldatzen ditu, bigarrenaren mesedetan.
- *Demografiari loturikoak*. Immigranteak kultura nagusian integratzen badira, gutxiengo nazionala bere lurraldean bertan gutxiengo bilaka daiteke. Horrek gutxiengo hau arlo publikotik zokoratzea ekarriko luke ondorio modura.
- *Arrazoi politikoak*. Immigrazioa talde nazional desberdinen arteko gatazkaren baitako tresna bilaka daiteke. Politika jakin bati segituz, halaber, Estatuak nazio minoritarioan immigranteak ezartzea bultzatzen dezake, nazio hori gutxitzeko asmoarekin.

Baina horien guztien gainera, *argudio utilitaristak* deritzenak gailentzen direla ere azpimarratu beharra dago. Hots, zenbait sektore ekonomikotan lan egiteko edo -eta joera demografiko batzuk gainditzeko immigranteak beharrezkoak direla. Hortaz, goian aipaturikoen gainera, azken ikuspuntu honek estaturik gabeko nazionalismoak immigrazioaren aurrean posizio positiboak garatzera behartzen dituela dirudi: a) etorkinak ekonomiarentzat beharrezkoak dira eta, beraz, nazioaren ongizatean laguntzen

6. Nazionalismo indartsurik ez duten hamaika adibideren artean, har dezagun, adibidez, Frantziako frankoprovenzeren mintzatzeko lurraldea. Gizartean ez da kultura minoritario horri buruzko eztabaida handirik izango eta, hortaz, migrazioen auzian kulturaren gaia ez da tratatuko (Estatuaren kulturaz gain, noski).

dute eta b) etorkinak heltzea, mundu mailako prozesu bat da eta errealtate ekidinezina da.

3.2. Kultura-aniztasun desberdinak?

Esan dugunez, estaturik gabeko nazionalismoak immigrazioa arazo gisa aztertzeke joera du, batetik; eta hainbat kasutan immigrazioa modu positiboan tratatzeko gai dela erakutsi du, bestetik. Baieztapen horrek, hortaz, ez du ezer determinatzen nazionalismo azpi-estatalak immigrazioaren aurrean duen jarreraz. Aitzitik, pertzepzio eta diskurtso jakin batzuen gainetik, estaturik gabeko nazionalismoa immigrazioarekin bateragarria da.

Horrek, kultura-aniztasunaren edo multikulturalismoaren gaia aipatzera garamatza. Estaturik gabeko nazionalismoak multikulturalismoari loturiko aldarrikapena egiten du parte den nazio-estatuaren barruan. Ezaguna denez, nazio-estatuak modernitatean zehar kulturaren alorrean homogeneizatze prozesu bat garatu zuten edo aurrera eramaten saiatu ziren, batzuk besteak baino eraginkortasun handiagoz. Azken hamarkadetan, baina, homogeneizatze prozesu horrek galga handia aurkitu du Europan batez ere hedaturiko nazionalismo azpi-estatalen eraginez. Nazionalismo hauek estatu zentralari euren nazioen desberdintasun kulturalak kontuan hartzea aldarrikatuko diote, besteak beste.

Egoera horri estatuz gaindiko migrazio fluxuen hazkundea gehitu behar zaio. Immigrazioaren errealtatea ez da inondik inora berria. Azken hamarkadetan, baina, fenomeno horrek ezaugarri berriak eskuratu ditu eta hazkunde nabarmena bizi izan du. Horrekin batera, immigrazioaren auziari loturiko aspektu berriek garrantzia berria hartu dute, hala nola kultura-aniztasunarena. Horrela, gizarte hartzailearen zein etorkinen aldetik, kulturaren eta nazio identitatearen alorrak ere azpimarratzen dira.

Hortaz, bi kultura-aniztasun ematen dira, garatzen dira, batera: estaturik gabeko nazionalismoak aldarrikatzen duena, batetik, eta immigrazioak dakarrena, bestetik. Horrela, ondoko galdera suertatzen zaigu: kultura-aniztasun horiek osagarriak dira ala, aitzitik, lehian jarduteko joera dute?

Galdera horri erantzun aurretik, gutxiengo nazionalen eta etorkinek osaturiko gutxiengoaren izaera desberdina kontuan hartu nahi dugu. Desberdintasun hori modu askotara azaldu da. Rainer Bauböck-ek, esaterako, hizkuntzaren gaian bereziki arreta jarritz, besteak beste ondorengo aspektuak azpimarratzen ditu (in Zapata-Barrero, 2008: 30-36), geure ustez interesgarriak izan daitezkeenak afera planteatu eta horri buruz eztabaidatzeko:

- a) Immigratzea *erabakitzen* duen pertsonak badaki bere kulturaren aspektu batzuk ezingo dituela gizarte hartzailean guztiz garatu.
- b) Etorkinek gizarte hartzailearen kulturaren baitan asimilazioa bilatzeko joera izaten dute, autonomia kulturalerako eskakizunak bakanak izanik. Areago, asimilazio horretarako eskubidea ere badute. (Argi dago errealtate hori etorkinen jatorriaren arabera asko aldatu egiten dela; eta eskakizun kulturalik ez izatearen arrazoen atzean kultura horien estigmatizazioa, besteak beste, aurki daitekeela).

- c) Immigranteak lurraldean dispertsaturik egon ohi dira eta horrek bere kulturaren zaintza zailtzen du.
- d) Immigranteena ez da historian zehar lurralde jakin batean asentaturik egon den giza taldea eta, beraz, bere izaeraren aldarrikapena argudio historikoetan egiteko zailtasun handiagoak ditu.
- e) Autogobernurako baldintzak gutxiengo nazionaliek betetzen dituzte, baina ez etorkin taldeek. Horrekin galdera honi erantzun nahi zaio, eta komunikazio honen helburuetarako, halaber, azpimarratu nahi duguna berau da: zergatik ezin dute etorkinek gutxiengo nazionalik osatu?

Gutxiengo bat gutxiengo nazional gisa hartzeko, ondorengo ezaugarriak azpimarratu ohi dira, besteak beste. Berauetan sakontzeko asmorik gabe, ondorengoak lirarteke:

- Lurralde zehaztu baten existentzia.
- Proiektu historiko bat edukitzea.
- Kultura publiko komun bat izatea.
- Gizarte berezitu bat osatzea.

Kymlickak azpimarratzen duenez (2003: 324), kontuan hartu beharreko aspektua nazio azpi-estatalek urteetan zehar garaturiko *survivance* nahia da, hau da, beren kultura, hizkuntza, autonomia politikoa... mantentzearen nahia eta kontzientzia. Finean, nazio gutxituen eta etorkin taldeen arteko izaeraren desberdintasun nagusia ezaugarri objektiboetan baino elementu subjektibo hauetan dago.

Hortaz, estatu multinazionalak berezko duten aniztasun kulturala eta migrazioak dakarrena bereizi beharra dago (Kymlicka, 1996). Testu honetan gutxiengo nazional deitu ditugu horiek, beste nazio batzuekin osatu ohi izan dituzte estatuak. Aniztasun hori ahortzi egiten den arren (nazio edo kultura hegemonikoa estatuaren nazio edo kultura bakar gisa hartuz), nazio-estatu izendatzen diren horiek, errealitatean estatu multinazionalak osatzen dituzte, euren mugetan nazio edo kultura bakarra ez duten heinean. Hala ere, jatorrizko herriez ari gara. Immigranteen kasuan, aniztasun kultural hori eremu familiarrean egikaritu ohi da, edo bestelako taldeetan, baina ez dago nazio lurralderik, ezta nazioa osatzeko asmo politikorik... Hortaz, migrazioari loturiko bigarren aniztasun honek estatu multietnikoa osatzen du. Eskakizun multinazionalak eta multietnikoak batera eman badaitezke ere, komeni da euren arteko izaera desberdina kontuan hartzea.

3.3. Harremanetarako aukerez

Esan dugunez, nazio azpi-estatalek eta migratzaile taldeek izaera desberdina dute eta, ondorioz, euren aldarrikapenek ere izaera diferentea dute. Hortaz, bateragarriak al dira bi kultura-aniztasun horiek ala, aitzitik, lehia posizio batean kokatzeko joera izango dute?

Afera hau aztertzeko, estaturik gabeko nazionalismo zehatzak aztertu behar ditugu. Hala ere, aurrerapen gisa baieztatu daitezke bi kultura-eskakizun hauek ez direla

zergatik euren artean gatazkatsuak izan behar, batuketa erraz batez ere hitz egin ezin daitekeen bezala. Horrela, bi egoera teoriko aurreratu ditzakegu geure ustez.

Lehen egoera gisa, estaturik gabeko nazionalismoaren eta etorkin talde zehatzen artean gatazkak eman daitezkeela egitate bat da. Interes kontrajarriak izan daitezkeen momentutik, immigranteak nazionalismo horren eskakizunen alde ez agertzea posible da, Quebecen neurri handi batean gertatu legez (Kymlicka, 2003). Hala ere, horretarako baldintza batzuk eman behar direla uste dugu. Horien artean, ondokoak aipa ditzakegu:

- Immigrante taldeak kopuruaren aldetik esanguratsuak izatea. Hau da, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak etorkin talde txiki zein dispertsatuek ez dutela aldarrikapen kulturalik plazaratuko.
- Etorkin taldeek euren artean nolabaiteko nazio zein kultura loturak izatea. Immigranteara ez da kategoria homogenea, ez du zergatik haren atzetik identitate komunik egon behar. Hortaz, nazio, kultura edo-eta erlijio aldetik nolabaiteko homogeneotasuna duten taldeek egin ditzakete mota horretako aldarrikapen transnazionalistak.

Aurrekoarekin ez dugu esan nahi bi baldintza horiek ematearekin eskakizun kulturalak sortuko direla, mota horietako aldarrikapenen posibilitatea bera eman ahal izateko beharrezko kondizioak direla baizik. Hala ere, argi izan behar dugu immigranteen kolektiboen izaera baztertuarena dela hainbatetan; eta, beraz, kultura bezalako eskakizunak garatzeko gizarte mailako oinarrizko beharrak, neurri batean behintzat, asetzea beharrezkoa izango litzatekeela.

Aurrekoa azalduta, bigarren egoera posible gisa, ondokoa genuke: nazionalismo azpi-estatalen aldarrikapenak eta etorkinenak bateragarriak dira, multikulturalismoari estuki loturiko ikuspegi batetik. Egoera horren alde legoke bi taldeen “baztertu izaera” deitu dezakeguna. Bi taldeek senti dezakete euren identitatea nazio-estaturik at dagoela. Egoera horrek euren izaera etnonazionala baztertua dakusaten talde desberdinen arteko elkarlana bultzatzen dezake. Balizko elkarlan horrek, halaber, baldintza batzuk beharko litzuzke.

Horien artean, estaturik gabeko nazionalismoaren diskurtsoa zein praktika etorkinei irekita egon beharko litzateke eta, areago, immigranteen berezitasuna kontuan hartu beharko litzateke. Hortaz, nazionalismo horrek kultura-aniztasunari buruzko diskurtsoa landu beharko luke eta, beraz, maila desberdinean bada ere, immigrante taldeen kultura onartzeko prest egon beharko luke. Edozein nazionalismori loturiko hainbat kontzeptu zalantzan jarri eta berreraikitze prozesu bat abian jarri beharko litzateke. Halaber, etorkinen eta nazionalista azpi-estatalen balizko elkarlan horretan, kultura bakoitzak gizarte espazio desberdinetan izan beharreko lekua adostea beste baldintza bat litzateke.

Immigrazioak estaturik gabeko nazionalismoan behar berriak sortzen ditu, bere jardunari dagokionean, besteak beste. Horrela, funtsezkoa da migrazioen gaia presente izatea mugimendu nazionalistaren jardueretan. Zentzu horretan, nazionalismo horrek immigrazioa mehatxu gisa ez ikusteko, oinarrizkoa da nazionalismo horretatik immigranteen kopuruetan eragingo duten politiketan parte hartu ahal izatea (Kymlicka, 2003). Horrekin auzi honetan ematen den errealitate eta aldi berean arrisku bat

ekidingo litzateke: immigrazioa estaturik gabeko nazioa gutxitzeko tresna gisa ikustea.

Aurrekoarekin lotuta, gutxiengo nazionalak integrazio politiken definizioan ere parte hartu beharko luke. Hau da, estaturik gabeko nazionalismoak bere ustez integrazioa zer den definitu behar du, integrazioaren ulerkuntza horretan bere nazio ikuspegia txertatu ahal izateko.

4. ABERTZALETASUNAZ ETA EGUNGO IMMIGRAZIOAZ

Jarraian estaturik gabeko nazionalismo batean ipiniko dugu arreta, euskal nazionalismoan, jakinik bere eremuan espainiar zein frantses nazionalismoak ere ari direla lehian. Horrez gain, ondorengo lerroek Hego Euskal Herriko lau herrialdeei erreferentzia egiten dietela ere zehaztu behar dugu, Iparraldeko immigrazio errealitateak aparteko azterketa behar lukeela uste baitugu.

4.1. Eboluzio argiko hartu-emana

Jarraian, sintetizatzen asmoz, euskal nazionalismoaren aldetik immigrazioaren auziaren aurrean izandako posizioaz gako batzuk eman nahi ditugu. Hartu-eman hori, anitza izateaz gain, konplexua ere izan da, oro har nazionalismoaren eta immigrazioaren arteko erlazioa konplikatu den heinean. Euskal nazionalismoaren baitan ildo desberdinak daudela ere kontuan izan behar dugu. Hala ere, komunikazio honen helburuak kontuan izanda, geure ustez garrantzitsuak diren aspektu batzuk azpimarratzera mugatuko gara.

Euskal nazionalismoak immigrazioarekiko bere jarreraren garapen handia bizi izan duela baieztatzea ez da gehiegikeria. Hortaz, ezin dugu aipatu gabe utzi euskal nazionalismoaren balizko izaera “etnikoari” egozten zaiola gaur egun oraindik etorkinekiko jarrera “itxi” bat. Nazionalismo baten izaera etniko edo zibikoaren auzia, baina, konplexua da oso; eta zenbaitetan nazionalismo hori aldarrikapen fasean egotean eta estaturik ez izatean (orduan “etniko” izendatuz) edo estatua izanda bere ikuspegiak “normaltasunez” hedatzeko aukera izatean (orduan “zibiko” deituz) oinarritzen da balizko banaketa analitiko hori. Hala ere, ez dugu hemen horretan sakontzeko betarik.

Aurrekora itzuliz, abertzaletasunak mende erdian isolamenduaren aldeko jarrera batetik integrazio asmoetarako bidea bete du. Laburbilduz, euskal nazionalismoak immigrazioaren aurrean garaturiko posizioei dagokionean, ondorengo hiru momentuak bereiz daitezke:

1. Lehen momentu batean, XIX. mendeko azken hamarkadatik aurrera, etorkinen aurkako erreakzio batez hitz egin dezakegu. Etorkinak Espainiako lurralde pobreetatik etorritakoak izango dira eta, beraz, klase izaera nabarmena izango du immigrazioaren errealitateak. Etorkinen aurkako jarrera hori euskal nazionalismo modernoaren sortzaile Sabino Aranaren testuetan islatzen da bereziki. Euskal nazionalismoaren hastapenak izanik, euskal nazioaren gizarte mugak argiki definitzea (honetarako, bestelako elementuetan oinarritzeko ezintasunaren eraginez, *arrazaren kontzepzio berezia erabiliz*⁷) eta besteengandik bereiz-

7. Hemen bi aspektu azpimarratzea komeni da, geure ustez. Batetik, *euskal nazioa* justifikatzeko beste-lako elementuek Aranari sortzen zizkioten arazoak (euskara bereziki, zeinaren egoera soziolinguistikoaren

tea izango dira lehentasunak. Euskal nazionalismoa ez da originala izango auzi horretan, eta gutxiengo etnikoen erantzun tipikoa emango du: isolamendurako joerarena (Conversi, 2002). Nazioaren definizio horretan, etorkinen integrazioa ezinezkoa izango da. Aldi hau sakon ikertu izan da eta, halaber, horri loturiko aipamen aunitz ezagunak dira.

2. Azaldutako lehen momentuaren ostean, trantsizioko ildo bat bereiz daiteke. Horren erakusgarri izan daitezke *Aberri* eta *Jagi-Jagi*-ko Eli Gallastegi *Gudari* bezalakoen planteamenduak⁸. Eusko Abertzale Ekintzak ere pauso batzuk eman zituen garapen honetan, nazioaren definizioan arraza maila sinbolikora batera mugatuz eta etorkinak espresuki euskal nazionalismora deituz (Granja, 1995: 41). Eboluzio politiko eta ideologiko hau 1936ko altxamendu militarrek eta ondorengo gerrak zein diktadurak gelditu zuten.
3. XX. mendeko erdialdetik aurrera, euskara zentraltasuna hartzen joango da euskal nazionalistek euskal nazioaz egingo duten definizioan. Euskara, horrela, funtsezko elementua bilakatuko da, neurri batean maila sinbolikora mugatuko bada ere. Horrela, euskara nazioa definitzeko erabiliko da, baina ez hainbeste herritarra definitzeko⁹. Ezkerreko abertzaletasunaren sorrerak, planteamendu berriei bidea irekiz, etorkinen integrazioaren aldeko prozesu hau azkartu zuen¹⁰. Hortaz, 1950etik aurrera, etorkina euskal nazioarekin bat egiteko asmoa erakusten du euskal nazionalismoak, eta hainbat etorkinek bat egingo dute mugimendu horretan. Horrela, abertzaleek etorkinak eta euskal herritar erdaldunak euren proiektura batzeko estrategia antzekoak erabiliko dituzte. Euskal herritar bilakatzeko, horrela, horretarako borondatea izango da beharrezkoa; eta horri loturik Euskal Herriaren alde ekitea, euskaraz jakin ez arren (Conversi, 2004).

Azken ildo hau euskal nazionalismoaren osotasunera zabaldu zen eta, neurri batean, arrakasta izan zuela baieztatu daiteke. Bozka prozesuetan euskal edo espainiar nazionalismoari loturiko alderdiei bozka ematerako garaian, herritarraren jatorria (etorkina izan edo ez) eragin handiko elementua izango bada ere (Pérez-Agote, 2008: 99), hainbat eta hainbat etorkinek bat egin zuten abertzaletasunarekin, batez ere ezkerreko abertzaletasunarekin (Conversi, 2004).

eraginez, nazioaren elementu bateratzaile gisa funtzionatzeko gaitasun gutxi baitzuen. Bestetik, Aranaren *arrazismoa* Europako egile arrazisten lanetatik bereizten da, eta espainiar jatorrikoen aurka esplizitu egiten da; baina, aldi berean, Arana Espainiaren aurka independentzia lortzeko borrokan ziharduten kubatar nahiz Rifeko berbereen alde agertuko da.

8. Adibide modura Manuel de la Sota Jagi-Jagiko kidearen ondoko aipua ondo etor liteke: “entre el *maketo* vasquizado y el vasco *maketizado*, ¿quién hemos de escoger con más predilección? La contestación, a mi juicio, no tiene duda. El primero, (...) muchos Pérez y Fernández, están dando lecciones de nacionalismo y de sacrificarse por Euzkadi” (1993: 112; 1933an idatzia).

9. Etorkinen integrazio bitarteko nagusi gisa hizkuntza hartzen duen nazionalismoaren adibidetzat kataluniarra hartzen da. Kataluniar eta euskal nazionalismoek migrazioaren aurrean duten jarreraren azterketa konparatibo baterako, ikus: Conversi, 2004.

10. Etapa zabal honetatik, besteak beste: Jáuregui, 1981; Garmendia, 1982; Apalategi, 2003.

4.2. Egungo immigrazioaren izaeraz

Ezaguna da euskal nazionalismoak immigrazioaren aurreko jarreran izan duen garapen handia. Aurrean aipatu ditugun posizioak, historikoki euskal nazionalismotik immigrazioaren afera lantzerakoan jorrotutako ildo nagusiak dira eta, hortaz, garai hailetako etorkin tipologiaren arabera ere eraikitakoak dira. Migratzaile haiek Espainiako lurralde pobretuetatik (Gaztela, Andaluzia, Galizia, etab.) Euskal Herrira joandakoak ziren eta, beraz, berezitasun hori kontuan hartu beharrekoa da.

Euskal Herrian bizi den gaur egungo migrazio-errealitateak, berriz, ezaugarri desberdinak ditu. Alde batetik, historikoki emandako hainbat joera eta ezaugarri mantentzen dira. Emigrazio fluxuak, Euskal Herritik at migratzen duten euskal herritar kopuruak, bere garrantzia du oraindik orain. Adibidez, arrazoi desberdinak direla medio, eta Euskal Herria hiru milioi biztanle inguruko lurralde txikia dela kontuan hartuta, 2003an, esaterako, 80.000 lagun joan ziren herrialdetik (Albite, 2005: 27).

Hala ere, egungo immigrazioa Espainia kanpoko herrialdeetan iturburua duena da, batez ere. Eta hau azaltzeko, kopuruetan baino, gizarte pertzepzioan jarri nahi dugu arreta. Jakina denez, immigrantearena estigmatizazio handiko gizarte kategoria da. Horrek bultzatzen du kolektibo batzuk (Magrebeko arabiarak edota latinoamerikar talde jakin batzuk, esaterako) gizartearen aldetik etorkin gisa ikustea, beste hainbatekin (ingelesak, estatubatuarak...) hori egiten ez den bitartean. Ikuspuntu horren atzean, klase ikuspegiak eragin handia du, eta immigrantetzat bitarteko ekonomiko zein kultural baxuenetako gizarte taldeak hartu ohi dira, kuantitatiboki beste batzuk garrantzia handikoak badira ere. Komunikazio honetan immigrantearen izaera estigmatizatuan zein kolektibo honek pairatzen duen gizarte bazterketa egoeran sakontzeko aukerarik ez badugu ere, aspektu hau ahaztu beharrekoa ez dela azpimarratu behar dela uste dugu.

Gaur egungo etorkinek, bada, 1960-1970eko aldiari iritsitakoekin alderatuz, ezaugarri desberdinak dituzte. Horrela, desberdintasun nagusienetako bat da egungo etorkinak immigrante gisa hartzen direla, Estatu beretik zetozenekin askotan gertatu ez bezala. Parametro kulturalen aldetik, gaur egun gizarte hartzailearen eta etorkinen artean jauzi handiagoaren pertzepzioa dago. Hau da, erlijioa, biltzeko ohiturak, gastronomia, etab.en arloetan, egungo etorkinen desberdintasunaren pertzepzioa handiagoa da da, aurrekoekin alderatuz.

Nabarmentzeko aspektua da, halaber, immigrazio berria Espainiar Estatuko beste lurralde batzuetan baino kopuru gutxiagotan ailegatu dela Euskal Herrira, eta baita beranduago zuzendu dela ere. Horrela, azken hamarkadan azkartutako prozesua da, baina Estatuko beste lurralde batzuetan baino askozaz maila apalagoan.

Beste alde batetik, eta egungo etorkinak Euskal Herria kontuan hartuz non kokatzen diren aztertzen badugu, gehien biltzen diren zonaldeak Nafarroako Erribera eta Arabar Errioxa direla ikusiko dugu (Aierdi, 2008). Horiekin batera, hiriburuetan ere geroz eta etorkin gehiago antzematen dira. Hortaz, kontuan izan beharrekoa da, euskara eta euskal kultura gutxiengo egoera argian dauden eremuetan biltzen ari direla batez ere etorkinak¹¹. Horrek eragin nabarmena du immigrazioaren aspektu nazional zein kulturala aztertu eta lantzerakoan.

11. Hala ere, salbuespen batzuk ere badira. Sakontzeko asmorik gabe, Lea-Artibaiko eskualdea (Bizkaiko

4.3. Eragile abertzaleen diskurtsoez

Jarraian, euskal nazionalismoaren baitan gaur egungo immigrazioari buruz garatzen diren diskurtsoez gako batzuk azaldu nahi ditugu. Ondorengo puntuok, horrela, euskal alderdi politiko zein sindikatu abertzaleei eginiko sakoneko elkarrizketa batzuetan dute oinarria¹². Komunikazio honen xedeak kontuak izanda, diskurtso horren gako nagusiak era laburrean azalduko ditugu, interesekoak zaizkigun aspektuak nabarmenduz.

Horrela, euskal eragile nazionalistek eurek eraikitako diskurtsoez ari garela kontuan izan behar da eta, beraz, politikoki zuzena denaren eremura mugatzeko joera izan daitekeela ez dugu ahaztu behar. Hala eta guztiz ere, eragile hauek euren gizarte oinarrian ikuspegiak eta jarrerak hedatzeko duten gaitasuna ere azpimarratzekoa iruditzen zaigu. Zentzu horretan, eragileok hedatzen dituzten diskurtsoak esangura berezikoak dira. Goazen, bada, euskal nazionalismoaren eragileek egungo immigrazioz garatzen duten posizioaren gako garrantzitsuenetako batzuk azaltzera:

- Euskal nazionalismoarentzat immigrazioarena ez da lehentasunezko gaia. Zentzu honetan, prentsa agerraldi gutxi burutzen dituzte afera honetaz hitz egiteko. Halaber, euskal nazionalismoaren erakundeetan, migrazioen gai espezifikoa lantzeko egiturak berriak dira edo arlo zabalagoen baitan antolatzen dira.
- Euskal nazionalismoaren baitan, immigrazioaren gizarte-aspektuari loturiko diskurtsoa gailendu egiten da. Adibide modura, aztertutako erakunde guztiek Espainiar Estatuko Atzeritarren Legearen aurkako jarrera erakusten dute.
- Maila orokor horretan, immigrazioaren kausa global zein sozioekonomikoak azpimarratzen dira. Horrela, 1970eko hamarkadako planteamendu batzuetan, Euskal Herria xede zuten migrazio mugimenduak Estatu Espainiarraren estrategia zehatz baten ondorio gisa kontzeptualizatzen baziren ere, egun gisa horretako ikuspeirik ez da antzematen.
- Euskal nazionalistentzat, Euskal Herriko instituzioek migrazioen alorrean politikak zehazteko ahalmenik ez edukitzea berebiziko gaia da. Ahalmen gabezia honen, euskal nazionalismoaren planteamenduak mugatzen dituzenez, oinarritzko kritika bat da.
- Euskal nazionalismoak Euskal Herrian bizi diren etorkine integrazioaren aldeko apustua egiten du. Horrela, gizarte integrazioa azpimarratzearekin batera (erakunde abertzale guztiek, sindikatuak barne, egiten dutena), etorkinek euskal nazioarekin bat egitea ere garrantzizko gaia da. Integrazioaren bi aspektuak, egiturazkoa edo sozioekonomikoa, batetik, eta kulturala, bestetik, planteatzen dira, oraindik orain egiturari loturiko integrazioak lehentasuna izanik.
- Euskal nazionalismoarentzat euskara integratzaile tresna da. Euskarak, horrela, etorkinen integrazioa segurtatu egiten du, integrazio kulturala bederen. Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoak, baina, gai honen aurrean abertza-

ekialdean) salbuespen honen adibiderik argienetakoa izan daiteke. Euskararen erabilera indizirik altuena erakusten duen eskualde honetan, etorkin kopuruak esanguratsuak dira.

12. 2007an burututako sakoneko elkarrizketak dira.

leak definizio handiegirik ez erakustera bultzatzen ditu. Hortaz, badirudi euskarak sinbolo paper inportantea bete dezakeela, ez hainbeste praktikari dagokionean.

- Immigrazioak euskal nazionalismoak defendatzen duen proiektu politikoari sortzen dizkion zailtasunak baino, euskal nazionalistek erronka berriak (etorkinekin lan egin beharra, euren jarduna etorkinak kontuan hartuz egin beharra, etab.) zein aukera berriak (aurreko etorkinek, hein handi batean, abertzaletasunarekin bat egin zutela gogoratuz) azpimarratzen dituzte.
- Oro har, euskal nazionalismoaren baitan, immigrazioaren afera aztertzerakoan agertzen diren hiru diskurtso ereduak zantzuak ikus ditzakegu:
 - a) Sindikatuen planteamendua. Gizarte eta lan munduko gaiak dute zentraltasun osoa, nazio integrazioari loturiko gaiak bigarren maila batean agertuz. Sindikatuek gain, Nafarroa Bai koalizioa eredu honetatik hurbil koka dezakegu.
 - b) EAJK ordezkatzen duen euskal nazionalismo *instituzionala*. Honek ere gizarte integrazioan ipintzen du arreta, baina integrazio politikoari loturiko gaiak ere (pertenentzia sentimendua, euskara...) jorratzen ditu. Zentzu honetan, indarra Euskal Autonomia Erkidegoak arlo honetan eskuduntzak izatean jartzen du, herritartasunari edo-eta naziotasunari buruzko azterketa teorikoak azpimarratu gabe. Ardura nagusia, beraz, lanari loturiko integrazio administratiboa izango da.
 - c) Ezkerreko abertzaletasunaren posizioa, zeinaren adibide Batasunaren planteamendua den. Honek, egungo egitura instituzionaletan baino, etorkinen (eta bertako) herritartasun nahiz naziotasun eskubideetan jartzen du arreta, euren arteko aliantza bat sortzea bere planteamenduaren mugarria izanik. Aurrekoak baino asmo teorikoagoa erakusten du, hortaz.

5. ONDORIO MODURA

Nazionalismoaren eta immigrazioaren arteko harremanak eredu desberdinak jarraituz egikaritu daitezke, jarrera itxietatik (immigranteak errefusatzeko) integrazio zein asimilazio asmoetara ere ailegatuz. Azken hauetan arreta ipiniz, XX. mendeko bigarren erdian zehar, immigrazioaren aspektu kulturala aztertzen zutenen aldetik, asimilazioa ondorio logikoa izango zela zirudien. Ameriketako Estatu Batuetako zein Kanadako gizarteak adibidetzat hartuz, etorkinak gizarte hartzailearen baitan asimilatzeko joera edo beharra zuen, gizarte mugikortasunerako aukerak biderkatzeko. Lehen belaunaldiko immigranteak guztiz integratzen ez baziren ere, hauen seme-alabek eta, areago, bigarren belaunaldiak, asimilazioaren aurreikuspen hori betetzen zuen.

Azken urteotan, hala ere, multikulturalismoaren ereduak aplikatu dira hainbat eremutan. Hortaz, immigranteen kulturek zein identitateek ere nolabaiteko aitortza behar dutela eta zenbait eskubide ere badituztela kontuan hartzen da. Ikuspegi hau, hala ere, oso maila desberdinetan aplikatu daiteke. Hala ere, kultura-aniztasunaren ideia hau baliagarri izan daiteke aniztasun multietnikoa deitu dezakegun hau (immigrazioari loturikoa) aniztasun multinazionalarekin (gutxiengo nazionaleri loturikoa) lotzeko. Finean, Estatu mugak erreferentzia gisa hartzen baditugu bederen, etor-

kina ez da errealitate homogeen batera ailegatzeko, eta aniztasun desberdinak ere ematen dira.

Estaturik gabeko nazionalismoak erreferentzia gisa hartuz, immigrazioaren afera modu desberdinetan landu daiteke ere bai. Nazionalismo hauen eta immigrazioaren arteko harremana problematikoa izan daitekeela ikusi dugu. Baina, aldi berean, nazionalismo azpi-estatalen aldarrikapenak eta immigranteenak bateragarriak ere izan litezkeela. Bi aukerak erakusten dizkiguten adibideak aurki ditzakegu testuinguru desberdinetan. Aukerak, hortaz, irekiak daudela esan dezakegu.

Estaturik gabeko nazionalismoak, bere lurraldeko kultura eta izaerari buruzko arduraren duen heinean, immigrazioa bere azterketa guneen eta praktika esparruen artean izateko joera izan beharko lukeela dirudi. Herrialde batzuetan eremu hau lantzen bada ere, Espainiar Estatuko nazionalismo azpi-estatalen aldetik gai hau ez da lehentasunezkoa izan, azken hamarkadetakoa immigrazio *berriaz* ari bagara. Hala ere, Katalunia aldean batez ere, Euskal Herrian baino ugariagoak dira horri buruzko azterketak.

Euskal abertzaletasunari dagokionez, immigrazioari buruz izan duen jarrera bere jardunaren aspektu esanguratsua izan da historian zehar. Gaur egungo immigrazioaren aurreko posizioa, baina, neurri batean definitzeko dagoela dirudi. Hala ere, azaldu dugun bezala, abertzaletasunaren barruan ildo desberdinak ere antzematen hasten direla baieztatu daiteke.

6. BIBLIOGRAFIA

- AIERDI, Xabier. "Hego Euskal Herriko atzerri immigrazioa". Ikus: *Jakin*, 165. zkia. 2008; 11-29 orr.
- ALBITE, Pedro. "Els reptes de la immigració per a Euskal Herria". Ikus: *Europa de les nacions*, 56. zkia., 2005; 26-29.
- ARGEMÍ, Aureli. "Nova immigració: impacte en nacions sense estat d'Europa. Panorama global". Ikus: *Europa de les nacions*, 56. zkia., 2005; 17-23 orr.
- APALATEGI, Jokin. *Los vascos, de la nación al estado*, Iruñea: Astero, 2006.
- AZURMENDI, Maria-Jose; GARCÍA, Iñaki. "Euskal-hiritartasuna eraikitzen: euskararen garrantzia". Ikus: *Inguruak*, 30. zkia., 2001; 75-82 orr.
- CONNOR, Walker. *Etnonacionalismo*, Madril: Trama, 1998.
- CONVERSI, Daniele. "Immigration and statelessness: Political Participation of Immigrants and their Descendants in Catalan and Basque Mobilizations (1959-1978)", ECPRren 14. workshop-erako prestatutako ponentzia, Turin, gaia: 'Political Participation of Immigrants and their Descendants in Post-War Western Europe', 2002.
- . "Nacionalisme i immigració a Catalunya i al País Basc", X. kapitulu, 223-308. orr. Ikus: *Els bascos els catalans i Espanya : entre la modernitat i la violència*, Lleida: Pagès, 2004.
- DÍEZ MEDRANO, Juan. *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas, 1999.
- GALLASTEGI "GUDARI", Eli. *Por la libertad vasca*, Tafalla: Txalaparta, 1993.
- GARMENDIA / PARRA / PÉREZ-AGOTE. *Abertzales y vascos. Identificación vasquista y nacionalista en el País Vasco*, Madril: Akal, 1982.
- GRANJA SAINZ, José Luis de la. *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, Madril: Tecnos, 1995.

- HERRERA, Encarna. "La incorporació d'immigrants a societats d'arribada". Ikus: *Revista catalana de sociologia*, 6. zkia., 1997; 23-23. orr.
- JÁUREGUI, Gurutz. *Ideología y estrategia política de ETA*, Madril: Siglo XXI, 1981.
- JUTEAU, Danielle. "Inmigración, ciudadanía y autogobierno: Québec en perspectiva". Ikus: *Documentos CIDOB*, 6. zkia., 2005.
- KYMLICKA, Will. *Ciudadanía multicultural*, Bartzelona: Paidós, 1996.
- . *La política vernácula. Nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*, Bartzelona: Paidós, 2003.
- PÉREZ-AGOTE, Alfonso. *Las raíces sociales del nacionalismo vasco*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas, 2008.
- SARTORI, Giovanni. *La sociedad multiétnica. Pluralismo, multiculturalismo y extranjeros*, Madril: Taurus, 2001.
- SHAFIR, Gershon. *Immigrants and Nationalists. Ethnic Conflict and Accommodation in Catalonia, the Basque Country, Latvia, and Estonia*, Albany: State University of New York Press, 1995.
- ZABALZA, Xabier. *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Bartzelona: Gedisa, 2006.
- ZAPATA-BARRERO, Ricard. *La inmigración en naciones minoritarias. Flandes, Quebec y Cataluña en perspectiva*, Bartzelona: Icaria, 2008.